



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/22

TMB Arraiz plantako Enpresa Komiteak Garbikerren eta Foru Aldundiaren kontrol handiagoa eskatu dau Bizkaiko Batzar Nagusietan, lantaldearen osasuna, birziklapenaren kalidatea eta instalazioen egoera ona bermatzeko

Enrique Álvarez, Juan Manuel Zorrilla eta Joseba Andoni Iglesias, TMB Arraiz AEBren enpresa komiteko ELAko ordezkariak, Arraiz mendian dagon tratamendu mekaniko biologikoko planta horretako beharginen “beharreko baldintza penagarriak” azaldu ditue gaur Eskaerarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordearen aurrean, eta Garbikerrek eta Aldundiak esleipena daukan enpresaren ganean kontrol handiagoa egitea eskatu dabe, lantaldearen osasuna bermatzeko, plantaren birziklapeneko helburuak beteteko eta instalazioen egoera ona ziurtatzeko.

Álvarezek gogoratuazo dauenez, orain hiru urte “geure laneko baldintza penagarrien barri emon genduan, eta denpora tarte honetan, hobetu beharrean, txarrera egin dabe”. Álvarezek zehaztu dauenez, 2013ko zezeilean inaugura uzanetik, plantan Q sukarraren agerraldi bi egon dira – azkenengoa 2018an, eta zazpi beharginengan euki eban eragina-. Horrez gain, joan dan zezeilean legionella foko bat hauteman eben, “eta zuzendaritzak 12 egun geroago jakinarazo euskun, eta gureztat hori oso larria da”. “Plantak 4tik, maila gorenetik, 3ko arrisku biologikoa dauka”, azpimarratu dau Enpresa Komiteko ordezkariak.

“Ez dira beteten ari Osalanek emon dituan aholkuak. Zuzendaritzak ez ditu onartzen eta ez dirala derrigorrez bete behar esaten dau”, kritikau dau Álvarezek. Esan dau, ganera, planteak “arratoiz josita dagola”, beharginak babesteko balio daben triaje kabinetako aireztapen sistemak behin eta berrero matxuratzen dirala, eta eskilaretako, igarobideetako eta lurreko garbitasun faltak, 2017tik 14 istripu eragin dituala, labankadak eta jausteak dirala eta.

Álvarezek hainbat proposamen zehatz aurkeztu ditu batzordekideen aurrean: garbiketako behargin gehiago kontratetea (5 persona txanda bakoitzean produkzinoko 3 txandetan, eta 12 gaueko txandan), behargin gehiago hartzea eta lantaldearen jardunaldia %100era igotzea, orain arte %75ean dago eta, produkzinoko txanda bakoitzean triaje 8 behargin dagozala bermatzeko, birziklatu daiteken materiala aukeratu ahal izateko.

Lantaldea handitu ezker, birziklatutako hondakinen ehunekoa handitu egin ahal izango litzateke. “Aldundiak berak autortzen dauenez, TMB plantan materialaren %7 birziklatu beharko litzateke, eta une honetan ia ez da %5era ailegetan”, zehaztu dau Álvarezek, eta gehitu dau horrek esan gura dauela 2018an material birziklagarriaren 3.500 tona berreskuratu barik geratu dirala. Bukatzeko, Álvarezek adierazo dau “Garbikerrek eta Bizkaiko Foru Aldundiak ezin dabela beste alde batera begira jarraitu” eta biei be kontrol eta ikuskapen gehiago eskatu deutse, enpresa esleipendunaren ganean.

Ohikoa danez, Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa) hasi dau esku-hartzeen txandea, legionella fokua aztertzeke adituren bat kontratatu daben galdetzeko. Eduardo Andrések (Bizkaiko Taldea Popularra) adierazo dauenez, “gai honen inguruko hainbat ekimen eta erantzun-eske aurkeztu doguz Gernikan, eta ez dala ezer aurreratu emoten dau”.

Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia) “taldearen laguntza eta esker guztia” bideratu deutse beharginei, “TMBko lan baldintzak hobetzeko beharrean jarraituko dogula”, esanez.

Plantaren egoera sentidu ostean, Marimar Rodríguezek (Euskal Sozialistak) lantaldea handitzeko eskaririk enpresa zuzendaritzari egin deusien galdetu deutso Alvarez. EH Bilduren izenean, David Lopategik, “esaten dozuengaitik, zuzendaritzak ez ditu protokoloak apliketan eta informazioa ezkutetan ari jatzue” adierazo dau, eta horren ostean Enpresa komiteko kideei, euren eretxiz, Bizkaiko Foru Aldundiak “AEB horren kontratua bertan behera izteko” baldintzak ete dagozan ala ez galdetu deutse.

Gorka Beitiak (Euzko Abertzaleak) hainbat erantzun-eske egin ditu; horreen artean, babes ekipoak plantaren 3. mailako arrisku biologikora egokituta dagozan eta zeintzuk diran instalazioetan aplikau beharreko neurri osagarriak.

Esku hartzeko bigarren txandan, enpresa komiteko ordezkariak taldeen galderei erantzun deutse, eta adierazo dauenez, denpora luzea daroe proposamenak eta konponbideak planteauz eta egoera salatuz, Osalanen eta Lan Ikuskaritzan. Gehitu dauenez, plantan kontrol eta ikuskapen faltak orain arte moduan jarraitzen badau, arazo gehiago egongo da.

Bermeo udal egoitzea

Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetakako Batzordeak persona honeek be hartu ditu: Leire Díaz, Bermeoko persona menpekoen udal egoitzako gizarte behargina eta LAB sindikatuaren ordezkaria; SAE (Sindicato de Auxiliares de Enfermería) sindikatuko Teresa Labajos; eta Héctor Burgoa, bertan dagon egoiliar baten senidea. Udalak ezin dauela eskaintzen ari diran zerbitzuen kostua bere gain hartzen jarraitu adierazo ostean, eskumenak bere gain hartzeko eskatu deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, egoitzan emoten dan zerbitzuaren jarraikortasuna eta kalidadea bermatzeko. Horrez gain, eskaria egin dabe, Foru Aldundiak Bermeoko Udalari bermatu deion zerbitzuaren benetako kostuaren ordainketea, eta Udalagaz negoziazio prozesua hasi daian, kalidadeko gizarte zerbitzuen kudeaketa publikoa egin eta egoitzako erabiltzaileen eta beharginen eskubideak bermatu ahal izateko.

Díazek azaldu dauenez, hasieran, egoitza monjek kudeetan eben, eta monjak joan ziranean, udalak egoitzaren kudeaketea bere esku hartu behar izan eban, baina egoera hori ezin da gehiago luzatu. “Dagozan 67 egoiliarretatik, 66 II. eta III. graduako menpekotasuna daukienak dira, eta horreen eskumena Aldundiarena da. Hori dala eta, Aldundiak hartu beharko leukez bere gain egoitzan emoten diran zerbitzuak”, azpimarratu dau Díazek. Egoiliarren senideen izenean berba egin dauen Burgoak, bere aldetik, “udalerriko bizitzan oso integrata dagon egoitza da, egoitzan dagozan personeren bizitza kalidadea oso ona da, eta ez dogu hori aldatzerik gura”, azpimarratu dau,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
22/03/2019

El Comité de Empresa de la planta TMB Arraiz pide en las Juntas Generales de Bizkaia un mayor control de Garbiker y de la Diputación Foral para garantizar la salud de la plantilla, la calidad del reciclaje y el buen estado de las instalaciones

Enrique Álvarez, Juan Manuel Zorrilla y Joseba Andoni Iglesias, delegados de ELA en el Comité de Empresa de la UTE TMB Arraiz, han relatado hoy ante la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia las “penosas condiciones de trabajo” de trabajadores y trabajadoras de esta planta de tratamiento mecánico biológico situada en el monte Arraiz y han solicitado un mayor control de Garbiker y Diputación sobre la empresa adjudicataria para garantizar la salud laboral de la plantilla, cumplir los objetivos de reciclaje de la planta y asegurar el buen estado de las instalaciones.

Álvarez ha recordado que hace ya tres años contaron ante la misma comisión “nuestras pésimas condiciones de trabajo y en este tiempo, lejos de mejorar, han empeorado”. Álvarez ha detallado que desde su inauguración en febrero de 2013, en la planta ha habido dos brotes de fiebre Q, -el último de ellos en 2018 y que afectó a siete trabajadores-, además de un foco de legionella detectado el pasado mes de febrero y “que la dirección tardó 12 días en comunicarnos, lo que consideramos gravísimo”. “La planta tiene un riesgo biológico de 3 sobre 4, que es el nivel máximo”, ha subrayado el representante del Comité de Empresa.

“No se están cumpliendo las recomendaciones que ha dado Osalan. La dirección no las reconoce y asegura que no son de obligado cumplimiento”, ha criticado Álvarez, señalando además que la planta “está infestada de ratas”, que los sistemas de ventilación en las cabinas de triaje que sirven para proteger a empleados y empleadas, sufren continuas averías, y que la falta de limpieza en escaleras, pasarelas y el suelo han provocado 14 accidentes por resbalones y caídas desde 2017 hasta la actualidad.

Álvarez ha presentado varias propuestas concretas a apoderados y apoderadas: la contratación de más personal de limpieza (5 personas en cada uno de los 3 turnos de producción y 12 en el turno de noche) así como el aumento de personal e incrementos de jornada al 100% a la plantilla que actualmente está al 75%, para garantizar que haya 8 peones en triaje en cada uno de los turnos de producción para que puedan seleccionar el material susceptible de ser reciclado.

El incremento de la plantilla permitiría aumentar el porcentaje de residuos reciclados. “Según la propia Diputación, en la planta de TMB se tendría que reciclar el 7% del material y en este momento casi no llega al 5%”, ha precisado Álvarez para añadir que esto supone que en 2018 se hayan dejado de recuperar 3.500 toneladas de material reciclable. Para terminar, Álvarez ha señalado que “Garbiker y la Diputación Foral de Bizkaia no pueden seguir mirando hacia otro lado” y ha pedido a ambas mayor control e inspecciones sobre la empresa adjudicataria.

Como es habitual, Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha comenzado el turno de intervenciones, preguntando si han contratado algún experto para estudiar el foco de legionella. Eduardo Andrés (Grupo Popular Vizcaíno) ha señalado que “hemos presentado varias iniciativas y preguntas sobre este tema en Gernika y parece que no se ha avanzado nada”.

Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha trasladado a trabajadores y trabajadoras “todo nuestro apoyo y nuestro cariño”, asegurándoles que “seguiremos trabajando para mejorar las condiciones laborales en TMB”.

Tras lamentar la situación en la planta, Marimar Rodríguez (Socialistas Vascos) ha preguntado a Álvarez si han pedido a la dirección de la empresa la ampliación de la plantilla. En representación de EH Bildu, David Lopategi, después de señalar que “por lo que decís, la dirección no está aplicando los protocolos y os está ocultando información”, ha preguntado a los representantes del Comité de empresa si creen que se dan las condiciones para que la Diputación de Bizkaia “rescinda el contrato a la UTE por incumplimiento”.

Gorka Beitia (Nacionalistas Vascos) ha lanzado una batería de preguntas; entre ellas, si los equipos de protección están adaptados al nivel de riesgo biológico 3 de la planta y cuáles son las medidas complementarias a aplicar en las instalaciones.

En su segundo turno de intervención, el representante del comité de empresa ha ido contestando a las cuestiones de los grupos y ha asegurado que llevan mucho tiempo planteando propuestas y soluciones y denunciando la situación tanto a la dirección como a Osalan y a la Inspección de Trabajo para añadir que si la falta de control e inspección en la planta continúa, seguirá habiendo más problemas.

Residencia municipal de Bermeo

La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía ha recibido también hoy a Leire Díaz, trabajadora social de la residencia municipal de personas dependientes de Bermeo y representante del sindicato LAB; a Teresa Labajos, del SAE (Sindicato de Auxiliares de Enfermería) y a Héctor Burgoa, familiar de una residente. Tras explicar que el Ayuntamiento no puede seguir asumiendo el coste de los servicios que se están prestando, han pedido que la Diputación Foral de Bizkaia asuma las competencias para poder asegurar la continuidad de la residencia. Además, han solicitado que el ente foral garantice al Ayuntamiento de Bermeo el pago del coste real del servicio y que inicie un proceso de negociación con el consistorio que permita la gestión pública de servicios sociales de calidad y garantice los derechos tanto de las personas usuarias como de las trabajadoras del centro.

Díaz ha explicado que en sus inicios, la residencia estaba gestionada por monjas y que cuando decidieron marcharse, el Ayuntamiento se vio obligado a asumir la gestión de la residencia pero que esta situación no puede prolongarse más. “De 67 residentes que hay, 66 son dependientes en grado II y III, que son competencia de la Diputación y por tanto, debería asumir los servicios que se les prestan en la residencia”, ha subrayado Díaz. Por su parte, Burgoa, que ha hablado en nombre de familiares de los y las residentes, ha destacado que “es una residencia que está muy integrada en la vida del municipio, la calidad de vida de las personas en la residencia es estupenda y no queremos que eso cambie”.